

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	ZALDIZ EGITEKO IBILBIDEEN AZTERKETA ETA KUDEAKETA	Iraupena	50
		Berariazkoa	
Kodea	UF0832		
Lanbide-arloa	Kirol-jarduera fisikoak		
Lanbide-eremua	Aisialdiko gorputz- eta kirol-ekintzak		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ingurune naturaleko zaldi-ibilbideetako gida	Maila	2
Prestakuntza-modulua	Zaldiz egiteko ibilbideak	Iraupena	110
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Ingurune naturaleko lekualdaketak, egonaldiak eta segurtasuna zaldi-jarduerak egitean (zeharkakoa).	Iraupena	30
	Zaldi-jardueretarako olgeta-jarduera osagarriak egitea, eta autonomia pertsonala mugatua duten pertsonetara egokitzea (zeharkakoa).		30

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator Askotariko lurretan zaldiz egiteko ibilbideak zehaztea eta antolatzea gaitasun-ataleko LB1 eta LB2 lanbide-burutzapenekin, ibilbideen diseinuari dagokionez.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

- A1: Gaur egungo faktore psikosozialak aztertzea, eta zaldi-ibilbideak prestatzean eragin lezaketen erabiltzaileen gaitasunak, beharrak eta motibazioak identifikatzea.
- E11.1 Gaur egungo gizartearen faktore jakin batzuek hainbat kolektiboren portaeretan eta harreman sozialetan duten eragina azaltzea.
- E11.2 Gaur egungo gizartearen barnean arrisku-, abentura- eta ihesbide-faktoreek zaldi-ibilbideetako motibazio-faktore gisa zer garrantzi duten azaltzea.
- E11.3 Aisiak eta turismoak gizartean duten garrantzia baloratzea, eta gorputz- eta kirol-jarduerekin eta naturan egiten diren jarduerekin zer lotura duten azaltzea.
- E11.4 Giza garapeneko etapa guztien funtsezko ezaugarri psikologiko, emozional eta fisikoak deskribatzea, baita zaldi-ibilbideak prestatzeko lanetan duten eragina ere.
- E11.5 Zaldiz ibilbideak egiteko behar diren funtsezko gaitasun eta ezaugarri motorrak aipatzea.
- E11.6 Giza garapeneko etapa guztietako gaitasun fisiko, baldintzatzaile eta koordinaziozkoen bilakaera deskribatzea.
- E11.7 Zaldi-ibilbideetan egiten den kirol-efortzuaren ezaugarriak eta sortzen den erantzun organikoa deskribatzea.
- E11.8 Erabiltzaileen ezaugarriak identifikatzeko kasuetan, helburuak eta jarduerak hautatzea.
- A2: Zaldiz gidatzeko jarduerak egitean osasun- eta errendimendu-maila baldintzatzen duten alderdiak aztertzea eta ibilbideak prestatzean aplikatzea.
- E12.1 Zaldi-jarduerak egiteko zer energia-eskaera izaten den kalkulatzea, ibilbideen iraupenaren eta intentsitatearen arabera, eta erreferentziako taulak erabiliz.
- E12.2 Erreferentziako taulak erabiliz pertsonaren eta egin behar den jardueraren ezaugarriak definitzeko kasu praktiko batean, hornitu beharreko jan-edanaren kantitatea eta mota eta hidratazio-jarraibide egokiak adieraztea.
- E12.3 Zaldi-jarduerak egiteak dituen kontraindikazio absolutuak eta erlatiboak aipatzea.
- E12.4 Zaldi-jarduerak egiteak giza organismoari ematen dizkion onurak aintzatestea.
- A3: Ingurune naturalean jarduerak egiteari eta ingurumena babesteari lotutako araudiak deskribatzea, eta zaldi-ibilbideak prestatzean aplikatzea.
- E13.1 Naturagune babestu motak aipatzea eta haien ezaugarriak azaltzea.
- E13.2 Naturaguneei buruzko araudia eta arau-erregulazioaren mendeko zaldi-kirolak azaltzea.
- E13.3 Zaldiz kirola egiteko baldintzak eta haren ingurumen-inpaktua aztertzea.
- E13.4 Ingurune naturalaren erabilera eta merkataritza-ustiapena mugatu edo murriztu dezaketen kausak deskribatzea.
- E13.5 Ibilbidea eta gaua igarotzeko lekua identifikatzeko kasu praktiko batean:
- Naturagune-motak aipatzea eta haien ezaugarriak azaltzea.
 - Ingurunera sartzea, zaldiak ibiltzea eta gaua igarotzea kontrolatzen duten erakunde arautzaileak zerrendatzea.
 - Ingurunean sartzeko eta zirkulatzeko baimena eskatzeko prozedurak deskribatzea, eta dokumentu bakoitza kudeatzen duen erakundea eta hartarako behar den denbora eta modua aipatzea.
 - Merkataritza-ustiapena baimentzeko prozedura deskribatzea.

EI3.6 Kasu praktiko batean, ingurumen-babesari dagokionez, gidek eta talde-laguntzaileek zaldi-ibilbideetan gidatzean dituzten zereginak deskribatzea.

A4: Zaldi-ibilbideetan gidatzeko jarduerak egiteko behar den informazioa lortzeko, aztertzeko, tratatzeko, prozesatzeko eta artxibatzekeo prozedura eta teknikak aplikatzea.

EI4.1 Lehen mailako eta bigarren mailako iturriaren eta zuzeneko nahiz zeharkako iturriaren kontzeptuak azaltzea eta iturri horietatik informazioa lortzeko prozedurak definitzea.

EI4.2 Ibilbideak antolatzekeo eskaintza definitzeko behar den informazioa adieraztea, baita informazio hori lantzeko irizpideak eta prozedurak ere.

EI4.3 Jarduerak egiten direnean ematen den zerbitzuaren kalitatea baloratzeko aukera ematen duten parametroak identifikatzea eta informazioa biltzeko teknika desberdinak deskribatzea.

EI4.4 Kasu praktiko batean, ingurune jakin bati buruzko informazioa ematen duten parametroen inguruko datuak abiapuntu izanik:

- Jarduera-proiektua egiteko behar den informazioa hautatzea.
- Emandako datuak interpretatzea, eta jarduera-proiektuari buruzko ondorioak ezartzea.

EI4.5 Antolakundeak ideiak eta eskuragarri dauden baliabideak ezartzen dituen kasu praktiko batean, jarduera-proiektua baldintzatzen duten elementuak zehaztea eta ondorioak ezartzea, proiektua lantzeari begira.

EI4.6 Ibilbidea lantzeko behar den alde zuzeneko informazioa identifikatzea, honako alderdi hauei dagokienez:

- Araudia.
- Mapak.
- Eguraldiari buruzko informazioa.
- Ibilbidearen zailtasunari eta/edo arriskugarritasunari buruzko informazioa.
- Taldearen ezaugarriari buruzko informazioa (alde zuzeneko esperientziak, interesak eta itzaropenak).
- Sorospen- eta larrialdi-postuei buruzko informazioa.

EI4.7 Ostatu hartzeari, mantenuari eta garraio bideei buruzko datuak biltzeko erabil daitezkeen informazio-iturriak identifikatzea.

EI4.8 Informazioa (testua eta irudiak) tratatzeko kasu batean oinarrituta, txosten bat lantzeko prozedurarik egokiena aukeratzea.

EI4.9 Informazioa aurkitzea eta ondoren erabiltzea errazten duten informazioa artxibatzekeo prozedurak deskribatzea, eta, biltegitutako informazioari dagokionez, bete behar diren konfidentzialtasun-arauak azaltzea.

EI4.10 Hainbat iturritako informazioaren kasu praktiko batean oinarrituta:

- Irudiak tratatzea informatika-erabilera emateko.
- Landutako testuak prozesatzea.
- Tratatuak informazio guztia konbinatzen duten dokumentua diseinatzea.
- Landutako dokumentua eta informazioa antolatzea eta artxibatzea, ondoren erabiltzeko.

A5: Zaldi-jarduera bat egiten den bitartean arrisku-egoerak prebenitzeko eta konpontzeko neurriak zehaztea.

EI5.1 Teknikari zaldi-ibilbideak egiteko dituzten funtzio prebentiboak deskribatzea.

EI5.2 Ibilbidearen ezaugarriak, kondizio meteorologikoak eta ingurune-baldintzak nahiz taldearen ezaugarriak deskribatzen dituen jarduera-kasu bat abiapuntu izanik, honako hauek identifikatzea:

- arriskua edo larrialdia eragin dezaketen elementuak
- norbera babesteko ekipamendua
- Materiala berrikusteko protokoloak: berrikusi beharreko ekipamendua eta berrikusteko maiztasuna, besteak beste.
- Giden arteko komunikazioaren uea.

EI5.3 Inguruko sorospen-zerbitzuei jakinarazi beharreko datuak zerrendatzea, jarduera egiten baino lehen.

EI5.4 Jardueran zehar garraiatu behar den segurtasun- eta komunikazio-materiala zehaztea, jardueraren ezaugarrien arabera.

EI5.5 Zaldiz egiteko ibilbideetan gidatzean izan litezkeen arrisku-egoeretan izan beharreko portaera-arauak eta segurtasuneko ekipamenduak eta materiala erabiltzeko arauak deskribatzea.

EI5.6 Hainbat larrialdi-egoera aipatzen dituen kasu batean oinarrituta:

- Egoeraren baldintzak deskribatzea.
- Larrialdiari irtenbidea emateko ekintzak proposatzea, arazoituz.
- Ebakuazio- edo erreskate-plan bat lantzea.

EI5.7 Erabiltzaileei eman beharreko informazioa deskribatzea, eta larrialdi-egoera batean eroriz gero eta materiala apurtu eta/edo galduz gero zer portaera izan behar den zehaztea.

EI5.8 Ezaugarriak behar bezala zehaztuta dauzkan ibilbide-zati zail eta arriskutsu baten kasu batean oinarrituta, hauek identifikatzea:

- Laguntza-taldeak bete beharreko jarraibideak.
- Beharbada komunikazio-estaldurak izango ez duten eremuak.

A6: Zaldi-ibilbideetako jarduerak prestatzeko baliabideak kudeatzeko teknikak aplikatzea.

EI6.1 Sarreraren eta gastuen aurrekontuak zer osaera duen jakitea.

EI6.2 Jarduerari egotzi beharreko gastuak identifikatzea.

EI6.3 Jarduera baten eta pertsona-talde baten kasuan oinarrituta, aurrekontu bat lantzea.

EI6.4 Egindako jarduera baten kasuan oinarrituta, ezarritako aurrekontuko desbideratzeak hautematea, eta behar diren zuzenketak egitea.

EI6.5 Egindako jarduera baten kasuan, gastuak justifikatzea, ezarritako moduan.

EI6.6 Zaldi-jarduera baterako behar diren bitarteko logistikoak deskribatzea, iraupenaren, jarduera egingo den tokiaren eta taldearen ezaugarrien arabera.

EI6.7 Bidaiariak garraiatzeari buruz indarrean dagoen araudia hautatzea.

EI6.8 Talde jakin baterako zaldi-ibilbidearen proiektuaren kasu praktiko batean, proiektua osatzea, eta honako alderdi hauek deskribatzea:

- Behar diren langile teknikoen ezaugarriak eta kopurua.
- Behar den banakako eta taldeko materiala.
- Gidariak eraman behar duen konponketa-materiala.
- Antolakuntzari, taldeko gainerako gidariei eta erabiltzaileei emango zaien jarduerari buruzko informazioa.
- Instalazioak eta garraio-langileak.
- Proposatutako ostatu-mota, ezaugarriak eta haren kostua.
- Proposatutako mantenua, ezaugarriak eta kostua.
- Erabiltzaileen garraioa, eta haren ezaugarriak eta kostua.

Edukiak

1. Zaldi-ibilbideen prestaketan oinarri psikosozialak aplikatzea:

- Aisia eta turismoa ingurune naturalean.
- Hezkuntza ez-formala eta gorputz- eta kirol-ekintzak.
- Zaldi-jardueraren eragina:
 - Ezaugarriak.
 - Garrantzi soziala.
 - Arrisku-, abentura- eta ihesbide-faktoreak.
- Kirolaren funtzio soziala: portaera eta harreman sozialak.
- Zaldiz egiteko ibilbideen diseinuko aplikazioak.

2. Erabiltzaileen ezaugarri psikologikoak, fisikoak eta sozialak ezagutzea:

- Bilakaera-etapak: haurrak, nerabeak, helduak eta adinduak.
 - Oinarrizko gaitasun fisikoak.
 - Gaitasun fisiko baldintzatzaileak eta koordinaziozkoak.
- Garapen ebolutiboa eta motorra.
- Bizi-kalitatea eta garapen pertsonala.

3. Jarduera fisikoak osasunean duen eraginaren balorazioa:

- Gaitasun fisikoa eta osasuna:
 - Organismoaren sistemak eta kirol-efortzua.
 - Zaldiz gidatzeko jarduerak egiteak dituen onura eta kontraindikazio erabatekoak eta partzialak.
 - Energia-eskakizunak. Energia-gastua, -ekarpena eta -balantzea, zaldiz gidatzeko jardueretan:
 - Elikadura.
 - Hidratazioa.
- Erabiltzailearen hasierako balorazio fisikoa: behaketa, elkarrizketa eta euskarriak.
- Ibilbideen diseinuko aplikazioak.

4. Ibilbide baten prestaketa orokorra:

- Zaldiz gidatzeko jardueretarako prebentzioa eta segurtasun-protokoloak:
 - Teknikariaren funtzio prebentiboa.
 - Arrisku-faktoreak eta istripu-kausa nagusiak.
 - Jarduera egin baino lehen sorospen-zerbitzuari jakinarazi beharreko datuen zerrenda.
 - Segurtasun- eta komunikazio-materiala berrikusteko protokoloak; egoera kontrolatzeko protokoloak; zaldiak eta pertsonak lekualdatzeko eta ebakutzeko protokoloak.
 - Larrialdiak: larrialdi-planak; erreskate- eta sorospen-zerbitzuak; eta tokiaren eta kondizioen arabera larrialdi-egoeretan portatzeko arauak.
 - Laguntza-taldeak jarduteko prozedurak eta komunikazio-estaldurak ez duten eremuak.
- Zaldi-ibilbideetan gidatzeko jardueretarako baliabideak kudeatzea:
 - Aurrekontua kontrolatzea eta lantzea.
 - Ostata eta mantenua: ezaugarriak eta kostuak.
 - Zaldi-ibilbideetan gidatzeko jardueretan erabiltzeko irizpideak.
 - Zaldi-ibilbideetan gidatzeko jardueren logistika: zaldiak, materiala eta bidaiariak garraiatzea. Garraio-bidearen ezaugarriak.

- Giza baliabideak: kudeaketa-eredua, prestakuntza eta antolaketa.
- Baliabide materialak: erosketak kudeatzea, behar diren baliabideen ezaugarriak aztertzea, hornitzaileak hautatzea.
- Zerbitzua sustatzeko ekintzak.
- Ematen den zerbitzua baloratzea eta aztertzea: zerbitzuaren ezaugarriak, zerbitzuak kalitatez emateari buruzko oinarritzko kontzeptuak. Zerbitzuaren kalitatea kontrolatzeko metodoak.
- Emaizak interpretatzea eta txostenak egitea.
- Aseguruak eta estaldurak.

5. Legedia- eta araudi-aplikazioa, zaldiz egiteko ibilbideen diseinuan, eta naturaguneen erabilerari dagokionez:

- Legeak.
- Naturaguneei eta haien erabilerari buruzko araudia
- Naturaguneetan sartzeari eta gaua igarotzeari buruzko estatuko eta autonomia-erkidegoko legedia.
 - Naturaguneetan sartzeko eta gaua igarotzeko administrazio-baimena.
 - Zaldiz egiteko ibilbideen antolatzaileari eta haietan gida-lanak egiten dituenari dagokion erantzukizun zibila.
- Naturagune babestuetan egiten diren kirol-ekintzei buruzko erregulazioa.

6. Zaldi-ibilbide baten diseinua eta programazioa:

- Zaldiz egiteko ibilbideak lantzeko behar den informazioa bilatzea, aztertzea eta tratatzea:
 - Informazioa lortzeko teknikak eta prozedurak: behaketa, inkesta, galdera sorta eta elkarrizketa.
 - Azterketa eta interpretazioa: zerbitzuaren kalitate-parametroak. Datuen babesia.
 - Testuen, kalkulu-orrien eta datu-baseen tratamendua, irudien tratamendua eta Interneteko nabigatzaileak.
 - Prozesatzea eta artxibatzea.
 - Antolatzeko eskuragarri dauden baliabideak eta elementu baldintzatzaileak.
- Informazio-iturriak:
 - Ibilbideak diseinatzeko behar den informazioa identifikatzea.
 - Lehen mailakoa / Bigarren mailakoa.
 - Zuzeneko/Zeharkakoa.
 - Informazio-iturriak aurkitzea.
 - Ostatatzea.
 - Mantenua.
 - Garraioa.
- Ibilbideak prestatzeko behar den informazioa:
 - Araudia.
 - Ibilbidea egingo den eremuko mapak.
 - Eguraldiari buruzko informazioa.
 - Zailtasunari eta arriskugarritasunari buruzko informazioa.
 - Sorospen-postuari buruzko informazioa.
 - Taldearen ezaugarriei buruzko informazioa, esperientziak, interesak eta itxaropenak.

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua izatea.
- 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 1. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana
- 25 urtetik gorakoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ingurune naturaleko zaldi-ibilbideetako gida.